



PENTSAMENDUAK ARRAIN ONTZITIK

Por GARAZI K. (Andoain)

Goizero, lo gozotik salto egin eta esnatzen garen momentu hori mila aldiz luzatuko nuke. Ez dakigu non gauden, zertan ari garen, zer egin dugun instant hori iritsi aurretik... Buruhaustez lepo baldin bagabiltza, hiru segunduz behintzat ahaztu egiten ditugu. Gero datoz eguneroko buruhaustek, bihotz taupada geldiezinak eta betiko arnas hestuak.

Zorionez ez zait horrelakorik gertatzen ari. Apenas gogoratzen dut zertan ari izan naizen ametsetan eta nola joan zaiten orohar gau guztia. Hori bai, arrain memoriako hiru segundoak igarotzen direnean burura etortzen zait eguneroko kontu bera : gaur ere zu ikusteko aukera izango dut.

Bart, ohera sartzerakoan, joan zen irailetik gauero egiten dudana erritual berdinar ekin nion : lumaz beteta dagoen buruko hartu eta besarkatu egin nuen. Irudimena bakardadean askatzen dut eta zinez maite ditut bakarrik egoten naizen momentu hauek. Beti zauzkat buruan ohera sartu eta ohetik ateratzean. Oheko buruko izango bazina... Bart ere, beti bezala, ondo tapatu eta eguneroko esaldia esan nion burukoari :

- Ondo lo egin, bihotza. Maite zaitut.

Ez nuen erantzunik jaso ; ez dut uste buruko batek sekula erantzunik emango lidakeenik.

Gustoko dut etxetik irten eta nire bihotzaren jabe nor den inork ere ez jakitea. Normalean gauzak gordetzeko gaitasunik ez dut baina nire buruak ondo daki gai hau ezin dela hala nola argitara atera. Nire buruak eta nik bakarrik dakigu neskak gustoko ditugula. Askotan irudikatu izan dut nire burua eskolan ikusten ditudan mutilen inguruan. Irudimena urrunegi joaten zait eta beti bizitza irreal bat datorkit burura. Barruan daramadan zentzu apurra hizketan hasten zait orduan :

- Zertan ari zara ? Ez dituzu gustoko... Zuretzat neskatoak. Utzi mutilak alde batera.

Nire buruarekin hizketan hastea besterik ez zait falta. Arrazoi osoa du, hala ere. Gizarteko bizitza standard-ak itsutzen gaitu eta argietatik haratago begiratzeko gai ere ez gara. Askotan uste dut kristalezko arrainontzi bateko arrain horixka naizela : mundua nire ikuspuntutik begiratzen dut, mundu standard guztiak arraro begiratzen didan bitartean.

Eskolara joateko garaia heldu da. Zaila egiten zait 25 urterekin berriz ere liburuen usainean aritzea ; hala ere, gelako erregina naiz. Egoerak kontrolatzen dakien bakarrenetarikoa naiz. Ume garaian ez bezala, etxeko lan guztiak egiten ditut baina zuk bidalitakoei arreta berezia eskaintzen diet.

Gogoan dut ikusi zintudan lehen eguna. Irailak 8an izan zen, goizeko 11etan. Ez dut sekula ahaztuko. Beldurra eman zenidan ; egia esan, orain ere beldurtu egiten nauzu. Hala ere, egun hartatik aurrera ezin zaitut burutik kendu.

Zure irakasgaiak beldurra ematen badit ere, asko atsegin dut zu hizketan entzutea. Nire klasekide baten baino gehiagoren aburuz, zuri ere neskak gustatzen zaizkizu. Ez dakit egia den ; ez naiz zuregana galdetzera joango. Badakizu hori egiteko gai ez naizela. Hala ere, atsegin ditut eskeintzen dizkidazun begiratuak. Begiradaz zerbait esateko gai izango banintz, dagoeneko guzita jakingo zenuke.

Nahiago dut hala ere begiraden jokuekin jarraitzea. Ez dut nahi nire ikaskideek nik ere neskak gogoko ditudala jakitea. Nire bizitza pribatuegia da eurentzat. Ez dut nahi ezta ere zu arazotan sartzerik. Inguruan dugun jendeak arrainontziaren kanpoko aldetik begiratzen gaitu. Ulergaitza egiten zaie gure egoera. Horrexegatik, ez dizut ezer esan nahi. Ez dut interesegatik ari naizela pentsatzerik nahi. Beldur naiz ea norbaitek entzungo nauen ; irudimena guztiok jartzen dugu dantzan eta eskolako edozeinek istoriorik arraroena asma dezake gure inguruan.

Gaur ordea, adoretzu esnatu naiz. Agian burukoak zerbait esan dit lo nengoen bitartean. Argi daukat bederen, ez dudala ezer galtzeko, nahiz eta badakidan agian zaplasteko batekin erantzungo diozula nire planari.

Aspalditik daramat, gelako bakardadean, zuregana hurbilduko nauen plana pentsatzen. Barruan daukadan alde txarrak behin eta berriz esaten dit ez naizela ezer egiteko gai izango. Baina badakit beldurrak uxatu behar ditudala eta pentsamenduetatik ekintzara pasa.

Plana ez da estrategia zorrotzenen parekoa ; erraza da, ez du misterio handirik.

Gaur ostirala denez, azken klase ordua zurekin izango dugu. Azkar pasako zaitela badakit, erlojuaren orratzak inoiz baino azkarrago mugitzen baitira ikasgelan sartzen zaren oro.

Betiko irribarrea eskainiko dizut, « gaur inoiz baino ederrago zaude » pentsatzen dudan bitartean. Beti bezain serio egongo naiz klasean, noiz edo noiz begiradaren bat eskainiko badizut ere. Berdin zait zerk edo nork inguratzen gaituen, denbora azkarregi pasako da gauza onerako.

Plana hala ere, klase bukaeran gauzatuko dut. Ostirala da eta asteburuaren usainean gabiltza guztiok ; pena emango dit hala eta guztiz ere asteburuan zu ezin ikusteak. Igande aspergarrietan bederen pozik esnatzen naiz, hurrengo egunean sikiera ikusiko baizaitut.

Ostiraleko azken klaseko azken minutuetan, beti gertatzen den bezala, ikaskideek ziztu bizian alde egingo dute. Gaur ordea, nire kasua bestelakoa izango da : inoiz baino astiroago jasoko ditut karpeta, kalkulagailua eta arkatzak. Gaur azkena izango naiz gelatik irteten. Badakit, beti bezala, atea ixteko itxarongo duzula eta behingoagatik zurekin bakardadean egoteko aukera izango dut. Gaur ez dut irudimena erabiltzeko beharrik izango, aurrez-aurre edukiko baizaitut.

Motxila hartuko dut eta badakit atean izango zaitudala zain. Bihotza lehertzeaz izango badut ere, esku dardartiekin atea itxiko dut. Zaila izango zait begietara begira jartzea baina lortuko dut. Gero dator nire buruhausteen zalantza nagusia : non emango dizut muxu ? Koldarren erregina bihurtzen banaiz, masailean utziko dizut nire ezpainen aztarna. Ausart jokutzen badut, aldiz, begiak itxiko ditut eta nire ezpainen zureak bilatuko dituzte, elkar ukitu arte. Behingoagatik nire begiak ez dira umezutz izango ikusten ez zaitudalako.

Hortik aurrera zer gertatuko den ez dakit. Batek daki, agian ez naiz ezer gauzatzera ausartuko eta gelatik alde egingo dut. Momentuko bulkadek diotena hartuko dut

kontutan. Baina kasualitateak ekarri zintuen nire mundu kaskar honetara eta ez nuke inola ere bertatik irteterik nahi.

Askotan pentsatu izan dut arrainek duten hiru segundutako memoria izango banu bihotzeko kilimak sentituko nituzkela uneoro eta endorfina sobredosiak jota ibiliko nintzatekeela egunero. Kasu honetan ordea, segunduak aurrera doaz ; jada hiru baino gehiago dira eta endorfinak jolasean dabilkit gorputz osoan.

Azken orduan gertatuko denaz pentsatzen jarraitzeari utziko diot hiru segunduz bada ere. Zure klase orduan elkar ikusiko dugu, muxuaren jarraipenarekin edo egundoko zaplastekoarekin ; arrain ontzian bederen, biontzako lekua badago.

MATXANGA